

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

Eraikin Publikoetako Mantentze-lanen Arduradunaren plaza bi (2) txanda irekian eta oinarri espezifikoak. Administrazio bereziko eskala, zerbitzu berezien azpieskala, hainbat lanbideetako langileen klasekoak, AP taldea, biak txanda irekian.

Alkateak 4213/2026 Dekretua eman du, abuztuaren 24an. Ebazpenak honako hau ezartzen du xedapen-zatian:

Lehenengoa: Eraikin publikoak mantentzeko arduradunaren bi (2) plaza betetzeko oposizio-lehiaketa bidezko hautaketa-prozesurako deialdia egitea. Plaza horiek Administrazio Bereziko eskalakoak, Zerbitzu Bereziako Azpieskalakoak, Hainbat Lanbideetako Langileen Klasekoak, AP Taldekoak, eta txanda irekian beteko dira biak.

Nolanahi ere, onartutako pertsonen zerrenda argitaratzeko izapidea baino lehen onartzen diren enplegu publikoaren eskaintzetan lanpostu hutsak sartzen badira, deialdiko plazen kopurua handitzeko oinarrietan jasotako gaikuntza aplikatu ahal izango da.

Bigarrena: 2024ko Enplegu Eskaintza Publikoan sartuta dauden Eraikin Publikoak Mantentzeko arduradunaren bi (2) lanpostu betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri espezifikoak onartzea. Oinarri horiek ebazpen honen eranskinean jasota daude.

Hirugarrena: Oinarri osoak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta horien laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea. Udalaren web-orrian, Gardentasunaren Atarian eta Basauriko Udalaren iragarki-taulan ere argitaratzea.

Laugarrena: Dekretu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Bilboko Instantzia Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Sekzioan, edo, bestela, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu zenetik ebazpena eman duen organo berean, hala ezarrita baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan.

Basaurin, 2026ko abuztuaren 27an.—Jarduneko Alkatea (2026ko uztailaren 21eko 3856/2026 Alkatetza Dekretu bidezko eskuordetza), Zuriñe Goikoetxea Urtaran



ERAIKIN PUBLIKOETAKO MANTENTZE-LANEN ARDURADUNAREN PLAZA BI (2)
TXANDA IREKIAN ETA OPOSIZIO-LEHIAKETA SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO
KARRERAKO FUNTZIONARIOAK HAUTATZEKO DEIALDIA ETA PROZESUA
ARAUTZEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

Lehenengoa. — Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da txanda ireki eta oposizio-lehiaketa sistemaren bidez Basauriko Udaleko jarraian adierazitako plazak karrerako funtzionarioekin betetzeko hautaprobetarako deialdia arautzea.

Bigarrena. — Aplikatu beharreko araudia

Honako legeria hau aplikatuko zaio udal plantillaren plazak jabetzan hartzeko hautaketa-prozesuaren deialdiari:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen.
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki-araubidearen arloko indarreko legezko xedapenen testuategina onartzen duena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoaren erreformarako neuriei buruzkoa.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administraziooko funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarrizko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituen.
- Ordezko gisa, 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorrean diharduten langileen sarbiderako, lanpostuen hornikuntzarako eta administrazio horretako funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako Arautegi Orokorra onartzen duena.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 16/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarena.



- Deialdiaren oinarri arautzaile hauek, bai eta Basauriko Udalaren hautaketa-prozesuak arautzen dituzten Oinarri Orokorrek ere.

Era berean, eremu horretan indarrean dagoen gainerako araudia aplikatuko da.

Hirugarrena. — Deitutako plazak

Eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradunaren plaza bi (2) betetzeko deialdia egiten da. Plazak Administrazio Bereziko Eskalakoak dira, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoak, Hainbat Lanbideetako Langileen Klasekoak, AP Taldekoak, eta txanda irekian beteko dira biak.

Deitutako plazak, bestalde, 2024ko Enplegu Eskaintza Publikoari dagozkio.

Deialdiko plazen kopurua handitu ahalko da, hutsik geratzen doazenak erakundeak onesten dituen enplegu-eskaintza publikoetan jaso eta alkatearen ebazpen bidez deialdi honetara gehituta. Edozelan ere, plazen kopurua handitu nahi izanez gero, gainditu dutenen zerrenda argitaratzeko izapidearen aurretik egin beharko da.

Ezaugarriak:

- Plazaren izena: Eraikin publikoetako mantentze-lanen arduraduna.
- Araubidea: funtzionarioa.
- Azpitaldea: AP.
- Hautaketa-sistema: oposizio-lehiaketa.
- Hutsik dauden lanpostuen kopurua: 2.
- Lanpostuak: Eraikin publikoetako mantentze-lanen arduraduna (COD183 eta COD186).
- B2B2 hizkuntza-eskakizuna edo horren baliokidea, 1999ko urtarrilaren 21eko eta 1993eko apirilaren 1eko derrigortasun-datekin, hurrenez hurren.
- Lanpostu-mailako osagarria: 14.
- Osagarri espezifikoak: 043.

Hautaketa-prozedura honetan, oinarri espezifiko hauez gain, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioa izateko hautapen-prozesuak arautuko dituzten Oinarri Orokorrek aplikatuko dira (2022ko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 141. zenbakikoan).

Honako hauek dira plazen eginbeharrak:

- Dauden zentroetako azpiegiturak kudeatzea, berrikustea eta kontrolatzea.
- Dauden eraikin eta/edo instalazioetako matxurak konpontzea eta kudeatzea.
- Dauden eraikin eta/edo instalazioetan behar bezalako higieena eta osasungarritasuna bermatzea.
- Dauden eraikin eta/edo instalazioen funtzionamendua bermatzea.
- Pertsonen arreta eta argibideak ematea.
- Oro har, lanpostuaren eginkizunei lotutako edozein zeregin.

Laugarrena. — Betebehar espezifikoak

Oinarri Orokorretan jasotakoez gain —2022ko maiatzaren 20ko 2070/2019 Alkatetza Dekretu bidez onetsi, eta urte bereko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (141. zenbakia) argitaratu ziren—, eskola-ziurtagiria edo horren baliokidea eduki beharko da.

Baliokidetasuna administrazio eskudunak emandako ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dute izangaiek. Atzerriko tituluak dituzten izangaiek egiaztatu beharko dute dagokion baliozkotzea edota, bestela, homologazioa jasotzen duen egiaztagiria badutela.

Haurrak eta nerabeak zaintzeko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearekin bat, adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetara sartzeko baldintza da sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituagatik edo edo gizakien salerosketa-delituagatik epai irmo bidez zigortua izan ez izana.



Euskarako B2B2 hizkuntza-eskakizuna duen lanpostu bat lortu nahi izanez gero, maila hori edo goragoko bat egiaztatzen duen Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko titulu edo ziurtagirietako bat, edo horien baliokidea den eta aitortza ofiziala duen titulua eduki beharko dute izangaiek; bestela, hizkuntza-maila hori egiaztatzeko deitutako proba gainditu beharko dute.

Aipatutako baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dituzte, eta mantendu egin beharko dituzte hautaketa-prozedurak irauten duen bitartean, izendapena egin arte.

Bosgarrena. — Azterketa-eskubideak

Administrazio-dokumentuak emateagatiko tasa ezartzen duen unean uneko indarreko ordenantza fiskalaren arabera dagozkionak izango dira.

Zenbateko hori ordaindu ahalko da ordainketa-pasabidearen bitartez. Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikokoan dago pasabiderako sarbidea, hemen: <https://sede.basauri.eus/eu/>. Era berean, azterketa-eskubideak autolikidazio bidez ordaindu ahalko dira. Agiri hori Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan jaso, eta bertan zerrendatuta dauden eta Basauriko Udalaren ohiko kolaboratzaile diren entitateetako edozeinen bulegotan aurkeztu beharko da.

Azterketa-eskubideak ordaindu beharko dira eskabideak aurkezteko epearen barruan, eta ez ordaintzea konpondu ezin daitekeen akatsa izango da.

Seigarrena. — Eskabideak**1. Aurkezteko modua**

Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutenek eskabide elektronikoa aurkeztu beharko dute, Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikokoan dagokion izapidea eginda

— <https://sede.basauri.eus/eu/>

Bestela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bidetatik aurkeztu beharko dute.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean behar bezala adierazi beharko da betekizunak betetzen direla, eta alegatutako merezimenduak zerrendatu egin beharko dira, baina ez da beharrezkoa izango eskabidearekin batera egiaztagiria aurkeztea: Epaimahaiak edo Giza Baliabideen Atalak eskatzen dituen unean aurkeztu beharko dira.

Izangaiek eskabidearen atal guztiak bete beharko dituzte, eta adierazi eskatutako betekizun guzti-guztiak betetzen dituztela, laugarren oinarrian xedatutakoarekin bat.

Horretarako, izangaiek honako hauek jaso beharko dituzte eskabidean:

- Datu pertsonalak.
- Oposizio-faseko ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- Alegatutako ikasketa-titulu ofiziala, deialdian parte hartzeko betekizun gisa eskatzen dena.
- Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna. Halakorik eduki ezean, deialdi honen hargarrien oinarrian (euskara-azterketari buruzkoan) xedatutako modu eta epean egiaztatuko da.
- Lehiaketa-fasean baloratu beharreko merezimenduen zerrenda. Ez dira baloratuko zerrenda horretan ez dauden merezimenduak. Merezimenduak behar bezala egiaztatu beharko dira, Udalaren webgunean horri buruz argitaratutako iragarkian ezarritako epean.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak berarekin dakar baimena ematea prozesu horretan zehar, edozein unetan, Udalaren Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren pertsonal sanitarioak egokitutako jotako kontrolak edo azterketak egiteko, eskatutako gaitasun funtzionala egiaztatzeko.



Hamalagarren oinarri orokorraren ondorioetarako (2022ko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 141. zenbakikoan, argitaratu ziren oinarri orokor horiek), eta hautaketa-prozesu honen ondoriozko lan-poltsak eratzeari dagokionez, izangaiek, eskabidean, adierazi beharko dute ea baimena ematen duten Administrazio Publikoaren beste entitate batzuei honako datu hauek lagatzeko: izen-abizenak, NANA, helbidea, harremnetarako telefono-zenbakia eta prestakuntza-maila. Datu-lagapen horren xede bakar eta eskusiboa izango da lan-eskaintzak egin ahal izatea, legeak aurreikusitako baldintzetan.

2. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei (20) egun balioduneko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi honi buruzko iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean agertzen den dataren biharamunetik aurrera.

3. Eskabideak ez onartzea eta akatsak zuzentzea

Eskabidea dagokion epe eta moduan ez aurkezteak edo ezarritako tasa ez ordaintzeak prozesutik kanpo geratzea ekarriko du —horiek biak konpondu ezin daitezkeen akatsak direlako—.

4. Datuen babesa

Oinarri hauen xede den hautaketa-prozesuan parte hartzeak berarekin dakar izangaia baimena ematea bere eskabidean jasotako izaera pertsonaleko datuak (izen-abizenak, NANA eta prestakuntza-maila) tratatzeko. Tratamendu horren xedea izango da, batetik, datuak argitaratzea buletinetan, iragarki-tauletan, webgunean eta, oro har, hautaketa-prozesuaren behin-behineko edo behin betiko emaitzak jakinarazteko erabilitako beste edozein bidetan, eta, bestetik, IVAPEk edo erakunde eskudunak euskara-maila edo beste edozein hizkuntzarena egiaztatzea eta, oro har, Epaimahaiak edo hark arduratzen duen erakunde edo enpresak datuok baliatzea hautaketa-prozesuaren probak behar bezala prestatu eta aurrera eramateko.

Oinarri hauen xede den hautaketa-prozesua publikitate-printzipioaren mende dago, eta, beraz, eskabideak ez dira onartuko izangaiek ez badute baimenik ematen aurreko paragrafoan aipatutako datuak lagatzeko, paragrafo horretan bertan adierazitako helburuetarako.

Interesdunek, bestalde, datuetara sartzeko, datu horiek aldatzeko, ezerezteko eta datuoi aurka egiteko eskubidea egikaritu ahaliko dute, honako helbide honetara idatzita: Datuak Babesteko Ordezkaritza, Kareaga Goikoa 52, 48970 Basauri. Bestela, mezu elektronikoa bidali ahaliko dute dpd@basauri.eus helbidera.

Zazpigarrena. — Izangaia onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartuen eta baztertuen zerrenda onetsiko da, alkatetza dekretu bitartez. Zerrenda horretan, bazter utzitakoak kanpo uzteko arrazoiak eta zuzendu beharreko akats edo hutsuneak dituzten kasuak zehaztu beharko dira. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

10 egun balioduneko epea egongo da akatsak edo ez-betetzeak konpontzeko edo onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak jartzeko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera. Horren ostean, alkateak beste ebazpen bat emango du, onartuen eta baztertuen zerrenda onartzeko, eta ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Erreklamazio berririk aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, automatikoki.

Izangai bat hautaketa-prozesuan onartzeak ez du eragotziko Administrazioak hura baztertzea, egiaztatzen baldin bada ez dituela betetzen onartua izateko eskatutako betekizunak. Kasu horretan, Epaimahaiak, interesdunari entzun ondoren, eta hala badagokio, izangai hori prozeduratik baztertzeko ebazpen-proposamena helaraziko dio alkatetari. Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzen duen dekretuan baztertu gisa agertu diren izangaiek errekursoak aurkezten badituzte eta, hautaprobak egiteko datan, errekurso horiek oraindik ebatzi gabe badaude, izangai horiek hautaprobak egin



ahal izango dituzte, nahiz eta emaitzek ez duten baliorik izango aipatutako errekursoak ezesten badira.

Onartuen eta/edo baztertuen behin betiko zerrendak argitaratu eta gero, hautaketa-prozesuari buruz egin beharreko iragarki guztiak Udalaren webgunean eta iragar-ki-aula elektronikoan argitaratuko dira.

Onartuen zerrendan egoteak ez du esan nahi jotzen denik interesdunek hautaketa-prozeduran eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izan ere, norbait hautatua izaten bada eta izendapenaren aurretik aurkeztu behar duen dokumentaziotik ondorioztatzen bada baldintzetakoren bat ez duela betetzen, pertsona horrek galdu egingo ditu prozedura honetan parte hartzearen ondorioz izan litzakeen eskubideak. Era berean, hautaketa-prozesuan zehar, edozein unetan, Epaimahaiak jakiten badu izangairen batek ez duela betetzen deialdian parte hartzeko baldintzetakoren bat, pertsona hori entzun, eta, gero, hura baztertzeko proposamena egin beharko dio organo eskudunari, izangaiak eskabidean jasotako zehaztasunik ezak edo faltsukeriak adierazita.

Zortzigarrena. — Epaimahai Kalifikatzailea

Epaimahai Kalifikatzailean epaimahaiburua, idazkaria eta lau epaimahaikide egongo dira, eta epaimahaikidetako batek IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Institutukoa izan beharko du, nahitaez. Hala xedatzen dute indarreko legeriak eta Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioa izateko hautapen-prozesuak arautuko dituzten Oinarri Orokorrak.

Epaimahaiak osaera teknikoa izango du batez ere, eta espezialitate-printzipioa izango da nagusi. Hartara, deitutako plazetarako aurreikusitako titulazio-maila bera edo goragokoa izan beharko dute kide guzti-guztiek, eta erdienak, gutxienez, bete beharreko plazen ezagutza-alorrekoa izan beharko du. Bestalde, hala ez dagokiola justifikatu ezean, sexu bakoitzeko % 40ko ordezkaritza egon beharko da, gutxienez.

Euskararen ezagutza-probarako epaimahaikideak proba horretan bakarrik jardungo du, ez bada berariaz besterik finkatzen dela.

Epaimahaikideen erdiek, gutxienez, deialdiaren xede diren lanpostuei dagokien maila nagusiko hizkuntza-eskakizuna edo handiagoa egiaztatuta izan beharko dute. Hala xedatzen du Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak.

Mahaikide guztiek, idazkariak izan ezik, hitza eta botoa izango dute. Idazkariak, berriz, ez du botorik izango. Epaimahaiaren erabakiak dauden botoen gehiengoak hartuko ditu, eta, berdinketa egonez gero, epaimahaiburuaren botoak ebartziko du.

Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezingo dute parte hartu, eta, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua jasotako egoe-raren bat ematen denean, alkateari jakinarazi beharko diote. Bestalde, izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahalko dituzte, aipatutako Legearen 24. artikuluari jarraituta, baldin eta aurreko artikuluan jasotako arrazoiren bat ematen bada.

Ezingo dute epaimahaikide izan hautaketa-prozesuetarako izangaiek prestatzeko lanetan ibili direnak deialdia argitaratu aurreko bost urteetan, edo, aldi horretan zehar, deialdiaren xede diren plazen eremu funtzionaleko oposizioak prestatzeko zentzoren batekin moduren batean lankidetzan aritu direnak.

Epaimahaiak aholkulariak deitu ahalko ditu. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira, hautaketa-prozesuaren proba batzuetan edota guztietan. Hala xedatzen du 11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu Publikoarenak.

Alkateak haiek izendatu eta gero, epaimahaikide titular eta ordezkoen izen-abizenen zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendarekin batera.

Konfidentziasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu Epaimahaiak. Ari- ketak zuzentzerakoan, ahalegina egingo da izangaien anonimotasuna bermatzeko.

Halaber, Epaimahaiak ahalmena izango du sor daitezkeen zalantzak ebazteko eta hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztiari buruz.

**Bederatzigarrena. — Deialdiak eta jakinarazpenak**

Epaimahai Kalifikatzailearen dokumentazioa, alkateak deialdiari buruzko emandako ebazpenak, emaitzak eta, oro har, prozesuari lotutako beste edozein argitalpen Udalaren webgunean eta iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da, eta horrek ez du eragotziko egoki iritzitako beste edozein publikizitate-bide ere erabili ahal izatea.

Hamargarrena. — Hautaketa-prozedura

Izangaiak hautatzeko, oposizio-lehiaketa bidezko sarbide libreko sistema erabiliko da: hiru ariketaz osatutako oposizio-fasea egingo da lehenengo, eta, ostean, lehiaketa-fasean, merezimenduak baloratuko dira. Prozesua praktikaldiarekin osatuko da.

Epaimahaiak ariketen hurrenkera aldatu ahalko du, edo egun berean zenbait proba pilatu, aurretiaz udal-webgunean horren berri emanda.

A. Oposizio-fasea (gehienez, 70 puntu, euskara-proba kenduta)**1. Lehenengo ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila) Jakintza teorikoen testa.**

Erantzun bat baino gehiago aukeran duten galderen sorta erantzun beharko da, oinarri hauen I. eranskineko gai-zerrendari buruz.

Gehienez, 30 puntu lortu ahalko dira ariketa horretan. Gutxienez, 15 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Ariketa horren zuzeneko puntuazioa (P) lortzeko, honako formula hau erabiliko da: erantzun zuzenen kopurua (Z) ken okerraren heren bat (O), hau da, $P = Z - O/3$. Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira okertzat hartuko.

2. Bigarren ariketa (nahitaezkoa eta baztertzaila)

Epaimahai Kalifikatzaileak gai-zerrendari eta lanpostuaren eginkizunei lotuta planteatutako kasu praktikoak ebatzi beharko dira.

Kasu praktikoak garatu ahalko dira idatziz eta/edo jarduera baten edo batzuen bidez. Epaimahai Kalifikatzaileak baimena eman ahalko du ariketa horiek egiteko materialak erabiltzeko.

Funtsean, baloratuko da planteatutako ariketa praktikoak ebazterakoan analisi-gaitasuna eta ezagutza teorikoak modu arrazoituan aplikatzeko gaitasuna. Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako irtenbideei buruz galdetu ahalko dio izangaiari, eta eragozpenak, planteamendu alternatiboak eta zehaztasun-eskaerak planteatzeko, edo kasu edo balizko arazoetarako egokitzapenak egiteko eskatu ahalko dio, errealitatean ematen diren egoerak eta rolak irudikatzen saiatzeko.

Gehienez, 40 puntu lortu ahalko dira ariketa horretan. Gutxienez, 20 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

3. Hirugarren ariketa (borondatezkoa eta ez-baztertzaila) Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba.

Ariketaren xedea da euskarako B2B2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea da. Deitutako lanpostuak Derrigorrezko B2B2.HE dute esleituta, eta, beraz, hori egiaztatzea sartzeko baldintza da. Ariketa Gai edo Ez Gai gisa kalifikatuko da, eta gainditzeko ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.

Euskara-proba egitetik salbuetsita egongo dira hura hasi aurretik Epaimahaiari egiaztatzen diotenak honako egoera hauetako batean daudela:

3.1. B2B2 hizkuntza-eskakizuna, hori baino goragokoa, edo horren balio-kidea den titulua edukitzea, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuarekin bat.

3.2. Proba egitetik salbuetsita egotea, Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bi-



dez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera.

Edozelan ere, euskara-ariketa egiteko data izango da euskarako edozein titulu edo ziurtagiri egiaztatzeko gehieneko epea.

Hizkuntza-eskakizuna honelaxe egiaztatuko da:

- a) IVAPEk, HABEk, Osakidetzak edo Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako ziurtagiriak edo tituluak dituztenek baimena eman ahalko diote Basauriko Udalari, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, ziurtagiri horiek egiaztatzeko.
- b) Aurreko paragrafoan aipatutakoez bestelako euskara-ziurtagiri edo -tituluak dituztenek, Udalari egiaztatzeko baimenik ematen ez diotenek edo ziurtagiriok adierazitako dataren ondoren lortzen dituztenek alegatutako tituluaren edo ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute, euskara-proba egin aurretik.
- c) 47/2012 Dekretuaren arabera hizkuntza-eskakizunaren azterketa egitetik salbuetsita daudenak ikasketak osorik edo zati batean euskaraz egin izanagatik, hala adierazi beharko dute eskabidean, eta, euskara-proba egin aurretik, ikasketak burutu dituzten zentroak edo unibertsitateak egindako ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute.

B. Lehiaketa-fasea (gehienez, 30 puntu)

Lehiaketa-fasea hasiko da oposizio-fasea amaitu eta gero, eta bigarren hori gainditu dutenek hartuko dute parte. Lehiaketa-fasean, izangaiek eskabideak aurkezteko epean alegatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira. Gero, merezimendu horiek behar bezala egiaztatu beharko dira, Udalaren webgunean argitaratutako iragarkian ezarritako epean. Merezimenduak baloratuko dira oinarri hauetan ezarritakoaren arabera, eta ezingo da baloratu bestelako merezimendurik.

Bestalde, bakar-bakarrik baloratuko dira eskabideak aurkezteko epearen amaiera-datara arteko merezimenduak. Era berean, ez dira baloratuko alegatu ez diren merezimenduak, ez eta, dagokion baremoaren arabera, baloratuak izateko beharrezko datuak ez dituztenak ere.

Lehiaketa-fasea ez da baztertzailerik izango, eta ez da kontuan hartua izango oposizio-faseko ariketak gainditzeko. Lehiaketa-fasean, 30 puntu lortu ahalko dira, gehienez.

Hona hemen merezimenduen baremoa:

1. Lan-esperientzia Administrazio Publikoan: gehienez, 30 puntu.

Lan-esperientzia edozein administrazio publikotan, eraikin publikoetako mantentze-lanen arduradun gisa edo kategoriatik horretako edo pareko kategoriatik bateko lanpostuetan (AP), deitutako eginkizun eta betebeharrak berekin edo antzekoekin: 6 puntu, lan egindako urte oso bakoitzeko, eta puntuazio proportzionala aldi laburragoetarako, 30 puntuko mugarekin.

Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan emandako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira.

Era berean, lanbide-esperientziaren ondorioetarako, aintzat hartuko da izangaiek senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzia-egoerari emandako denbora; amatasuna eta aitasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzukidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketan edo baimenetan emandako denbora, eta, emakumezko enplegatu publikoen kasuan, genero-indarkeriagatik baimenetan emandako denbora. Hala xedatzen du Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21.1 c) artikulua.



Oposizio-faseko ariketak amaitu eta lehiaketa-faseko merezimenduak baloratu eta gero, Epaimahaiak hautaketa-prozesuaren fase biak batu, eta sailkapen-hurrenkera ezarriko du, txikienetik handienera.

Hamaikagarrena. — Hautaketa prozesuaren garapena**1. Hasiera**

Oposizio-faseko ariketak ezingo dira hasi deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datatik bi hilabete igaro arte.

2. Argitaratzea

Oposizio-fasearen lehen ariketaren tokia, data eta hasiera-ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean eta iragarki-taula elektronikoan argitaratuko dira, hautaketa-prozesurako (txanda irekia eta barne-sustapena) onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko ebazpenarekin batera. Hala xedatzen du Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

Oposizio-faseko gainerako ariketei buruzko iragarkiak Udalaren webgunean eta iragarki-taula elektronikoan argitaratuko ditu Epaimahaiak. Iragarki horiek hurrengo ariketa egin baino 48 ordu lehenago argitaratu beharko dira, gutxienez.

Halaber, ariketa bakoitzaren puntuak jakitera emango dira Udalaren webgunean eta iragarki-taula elektronikoan argitaratutako iragarki bidez.

3. Deialdia

Hautagaiei behin baino ez zaie deituko ariketa bakoitzerako. Hala, edozein ariketa egiteko deitu, eta une horretan azaltzen ez badira, ariketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea galduko dute, automatikoki, eta, beraz, hautaketa-prozesutik baztertuta geratuko dira, behar bezala justifikatutako eta Epaimahaiak onartutako kasuetan izan ezik. Gauza bera gertatuko zaie nahitaezko probak jada hasita daudela agertzen diren izangaiei. Borondatezko probetara agertu ez edo berandu agertuz gero, joko da proba horiei uko egiten zaiela.

4. Izangaiek jarduteko hurrenkera

Probak egiteko izangaien hurrenkera ezarri behar izanez gero, Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzak horretarako eginiko zozketaz erabakiko da, 364/1995 Errege-Dekretuaren 17. atalarekin bat. Zozketan ateratako letrarekin hasten den lehen abizena duen izangairik ez badago, letra horren hurrengora joko da.

5. Azterketak berrikustea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioak

Arau orokor gisa, bost (5) egun balioduneko epea ezartzen da egindako azterketak berrikusteko, eta hamar (10) egun baliodunekoa, berriz, horien kalifikazioei buruzko erreklamazioak aurkezteko. Epe horiek biak zenbatzen hasiko dira Epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den datan.

6. Identifikazioa

Epaimahai Kalifikatzaileak errekerimendua egin ahalko die izangaiei, edozein unetan, behar bezala identifikatu daitezen. Ildo horretan, izangaiek NANA, edo, Epaimahaiaren iritziz, nortasuna egiaztatzeko egokia den beste edozein agiri ofizial eramane beharko dute oposizio-faseko ariketa bakoitzera (pasaporte, gidabaimena, atzeritarren identifikazio-zenbakia, etab.).

7. Denborak eta baliabideak egokitzea

Epaimahaiak ahalmena izango du deialdi honetako frogak aurrera eramateko egoki irizitako denbora- eta baliabide-egokitzapenak egiteko eskaera-orrian desgaitasunen bat adierazi duten izangaiarentzat, baldin eta egokitzapen(ar)en ondorioz dagokion probaren edukia hutsaltzen ez bada edo eskatutako gaitasun-maila jaisten ez bada, eta, bestiere, beste izangaiekiko aukera-berdintasuna bermatuta. Hala ezartzen dute 2271/2004 Errege Dekretuaren 8. artikulua eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74.4 artikulua.

**8. Haurdunaldia, edoskitzaroa eta erditzea**

Haurdun, erditzeko egoeran edo edoskitzaroan dauden emakumeek egokitzen materialak eskatu ahalko dituzte. Horretarako, Langile eta Antolaketa Atalari jakinarazi beharko diote, probak egin baino bost egun baliodun lehenago, gutxienez. Behar bezala egiaztatutako haurdunaldi, erditze edo edoskitzaroa dela-eta izangairen batek ezin badu hautaketa-prozesua osatu edo ezin badu ariketaren bat egin, bere egoera prozesua amaitzearen eta atzeratutako faseak gainditzearen baldintzapean geratuko da. Fase horiek atzeratu bai, baina ezingo da kaltetu gainerako izangaiek prozesua arrazoizko tarte batean ebazteko duten eskubidea. Ildo horretan, Epaimahaiak baloratuko du egokitzen nola egin, probak egiteko uneari dagokionez, eta, nolanahi ere, atzeratutako faseak egin beharko dira hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik.

Oinarri Orokorretan xedatutakoaren kalterik gabe, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendaren ostean deialdi honi lotuta egindako iragarki guztiak Udalaren iragar-ki-taulan eta webgunean argitaratuko dira.

9. Ariketen arteko tartea

Oposizio-faseko ariketa bat amaitu eta hurrengo hasi aurretik, 72 ordu igaro beharko dira, gutxienez, eta 45 egun, gehienez. Hala ere, Epaimahaiak, egokitzen jotzen badu, erabaki ahalko du saio berean azterketa bat baino gehiago egitea.

Hamabigarrena. — Azken kalifikazioa eta lehentasun-hurrenkera

Hautaketa-prozesuaren amaierako kalifikazioa izango da ariketetan lortutako puntuazio guztien batuketa (betiere, ariketak gainditu baldin badira). Berdinketarik egonez gero, uztailaren 1eko 2377/2022 Alkatetza Dekretu bidez onetsitako Oinarri Orokorren bederatzigarrenean xedatutakoa aplikatuko da.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileak Udalaren webgunean eta iragarki-taula elektronikokoan argitaratuko ditu gainditu duten izangaien behin-behineko kalifikazioak, guztira lortutako puntuazioak handienetik txikienera antolatuta eta hautatutakoak nortzuk diren berariaz adierazita. Hautatuen kopuruak ezingo du izan deitutako lanpostuena baino handiagoa.

Behin betiko kalifikazioa eta izangaien lehentasun-hurrenkera ezarriko da oposizio-fasean lortutako puntuak eta lehiaketa-fasekoak batuta. Bestalde, izendatuak izateko, praktikaldian «gai» kalifikazioa lortu beharko dute izangaiek.

Gaitasun-berdintasuna egonez gero, emakumei emango zaie lehentasuna Administrazioaren kidego, eskala, maila eta kategorietan, baldin eta % 40tik beherako ordezkaritza badute, salbu eta beste izangaiek neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak badituzte (hala nola, enplegua lortzeko eta sustatzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kideak badira). Hala xedatzen du Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 21.1.a) artikulua.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gora behera, berdinketa mantenduz gero, hurrenkera ezarriko da, lehenik eta behin, oposizio-fasearen bigarren ariketan (praktikoan) puntu gehien lortu dituenaren alde, eta, bigarrenik, oposizio-fasearen lehenengo ariketan (teorikoan) puntu gehien lortu dituenaren alde.

Gainditu duten izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzen den dataren bihar-ramunetik aurrera, interesdunek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute egoki irizitako erreklamazioak aurkezteko.

Epaimahai Kalifikatzaileak, hala badagokio, erreklamazioak ebatzi, eta hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Jarraian, praktiketako funtzionario izendatuak izateko proposatutako izangaien zerrenda argitaratuko du Epaimahai Kalifikatzaileak, eta hamabost (15) egun balioduneko epea zabalduko du, 2. oinarrian jasotako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten



dokumentu konpultsatuak aurkez ditzaten. Horiekin batera, honako dokumentu hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua.
- b) Izangai atzerritarrek Basauriko Udalaren jakinarazpen bat jasoko dute, non adieraziko baitzaie beren egoera dela-eta zein agiri aurkeztu behar dituzten, nahitaez.
- c) Zinpeko adierazpena, non adieraziko baita izangaia ez dagoela ez funtzio publikoetan jarduteko desgaituta, ez edozein administrazio publikotako zerbitzutik diziiplina-espediente bidez baztertuta, ez eta abenduaren 26ko 53/1984 Legearen herri administrazioetako langileentzat aurreikusitako ezintasunerako edo batezintasunerako lege-arrazoietan sartuta ere.
- d) Espainiako nazionalitateak ez duten izangaiek zinpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta esan beren estatuan ez daukatela funtzio publikora sartzea galarazten dien diziiplina-zehapenik edo zigor-kondenarik.
- e) Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua egiaztatu beharko dute, organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bitartez.
- f) Hautatutako izangaiek egiaztatu beharko dute ez daukatela oinarri hauen arabera dagozkien eginkizunak betetzea galarazten dien gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik. Horretarako, dagozkien proba eta osasun-azterketak egin beharko dituzte, Basauriko Udalaren lan-osasun zerbitzuetan. Lanpostua betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzeko osasun-probak eta osasun-azterketa egiteko deialdia era pertsonalizatuan egingo dira.

Aipatutako epean, eta ezinbesteko arrazoiak gertatzen direnean salbu, izangaiek ez badute dokumentazioa aurkezten, edo ez badute egiaztatzen eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela, ezingo dute izendatuak izan, eta beren jarduketa guztiak baliogabetu egingo dira. Horrek ez du eragotziko eskabidean faltsukeria erabili izanagatik sor litekeen erantzukizuna leporatzeko aukera. Kasu horretan, izangaia hautaketa-prozesuaren emaitzan lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordeztuko dira, aipatutako agiriak aurretiaz aurkeztu eta gero.

Hamahirugarrena. — Onartuen zerrenda eta izendapen-proposamenak

1. Ariketak gainditu dituztenen zerrenda argitaratzea

Oposizioaren azken ariketa amaitu eta lehiaketa-faseko merezimenduak baloratu eta gero, gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du Epaimahaiak, lortu dituzten puntuen hurrenkeran. Zerrenda horrek oposizio- eta lehiaketa-faseen kalifikazioa eta horien bien batura jasoko ditu.

2. Hautatutakoen zerrenda

Hautaketa-prozesuaosatzen duten proben eta merezimenduen kalifikazioa eginda, Epaimahaiak hautatutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko du, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, eta praktiketako funtzionarioa izendatzeko proposamena egingo du, eskumena duen organoari zerrenda bidalita. Zerrenda horretan ezingo dira egon guztira deitutako plazak baino izangai gehiago —Euskal Enplegu Publikoaren Legearen abenduaren 1eko 11/2022 Legea, 78.6 artikulua—. Aldi berean, azken saioaren akta bidaliko dio Epaimahaiak organo eskudunari, non agertu beharko baitira, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, proba guztiak gainditu, baina deialdiko plazen kopurua gainditu duten izangai guztiak. Hori egin beharko da, plaza lortu duen izangairen batek hura jabetzan hartu ez, edo lanpostu-erreserbarik gabeko eszedentzia eskatzen duen kasuetarako. Edozelan ere, azken zerrenda horretan egoteak ez dakar inolako eskubiderik.

Hautaketa-prozesua amaituta, destinoa hautatuko da izangaia behin betiko sailkapenean duten hurrenkeraren arabera, eta, betiere, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 71.4 artikulua xedatutakoarekin bat.



3. *Lan-poltsa*

Hautaketa-prozesuaren emaitzak oinarri hartuta, lan-poltsa eratuko da, oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten izangaiekin. Hasieran, hiru (3) urteko iraupena izango du lan-poltsa horrek, eta aldi baterako langile-beharrizanak betetzeko baliatuko da. Lan-poltsa hori kudeatuko da Basauriko Udalaren lan-poltsak kudeatzeko Araudian ezarritakoaren arabera, jarraian datorren paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera eratutako lan-poltsa agortzen bada, beste lan-poltsa batzuen aurrean lehentasuna izango dute nahitaezkoak eta baztertzai-leak diren proba gehien gainditu dituztenek osatutako zerrendek, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran.

Berdinketa egonez gero, oposizio-fasearen bigarren ariketan puntu gehien dituenaren alde ebatziko da.

4. *Epaimahaien ebazpenak*

Epaimahai kalifikatzaileek emandako ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egiteko eskumena duen organoarentzat, baina organo horrek ebazpena berrikusi ahal izango du. Hala xedatzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak.

Hamalagarrena. — Egiaztagiriak aurkeztea

Hamalagarren oinarri orokorrak eta hamabigarren oinarri espezifikoak arautuko dituzte parte hartzeko baldintzak betetzearen egiaztagiriak aurkezteari dagozkionak.

Ez da beharrezkoa izango Basauriko Udalaren langileen espedientean dagoeneko dauden dokumentuak aurkeztea. Kasu horretan, nahikoa izango da horiek epe barruan alegatzea.

Espainiako nazionalitatea ez dutenek euskarara edo gaztelaniara ofizialki itzulita aurkeztu beharko dute adierazitako dokumentazio osoa. Itzulpena dagokion kontsultatuak edo bulego diplomatikoak gaitutako zinpeko itzultzaileak egindakoa izan beharko da.

Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiatzatzeko, berriz, jatorrizko ziurtagiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztuko dira, Basauriko Udalaren langileen espedienteetan dagoeneko dauden dokumentuenak izan ezik.

Hamabosgarrena. — Praktikaldia eta izendapena

Hiru hilabeteko praktika- eta formakuntza-aldia egongo da. Beraz, hautaketa-prozeduraren oposizio- eta lehiaketa-faseak puntuazio onenarekin gainditzen duten izangaiek —gehienez ere, guztira eskainitako plazen izangai-kopuru bera— praktikaldia egingo dute, zeina hautaketa-prozeduraren beste fase bat izango baita.

Praktikaldi hori egingo dute atxikiak izan diren atalean, hiru hilabete zehar, behar bezala iragarriko den datan.

Praktikaldian etengabekoa izango da ebaluazio-prozedura, zeina bakar-bakarrik etengo baita aldi horretan zehar puntualki edo pilatuta hamabost egun baino gehiago irauten duten absentsia justifikatueta. Kasu horretan, eragindakoa ezarritako aldi osoa bete beharko du.

Izendatutako hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuak izango dira, eta eskubidea izango dute indarreko udal araudian ezarritako ordainsariak jasotzeko. Era berean, alta emango zaie Gizarte Segurantzari, praktiketako funtzionarioei dagokien araubidean.

Praktiketako funtzionario izaera mantenduko da karrerako funtzionario gisa karguaz jabetzeko datara arte edo praktikaldian baztertua izan arte.

Praktiketako funtzionario jarduna hasiko da Udalak ezarritako datan. Joko da adierazitako epean, bidezko arrazoirik egon gabe, aurkezten ez direnek prozesuari uko egiten diotela. Pertsona horiek, gainera, eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, alkatetako izendapen-proposamena egingo du praktiketako funtzionario-izendapena egiteko hautaketa-prozesu osoa gainditu eta uko-egitearen ondorioz deitutako plazen barruan daudenen alde.



Praktikaldian zehar, jarraian ebaluatuko dira deialdiaren xede den plazaren funtzio eta zereginak egokiro betetzeko abilezia eta trebetasunak.

Izangaiak «gai» ala «ez gai» kalifikazioa lortu ahalko du, eta, hautaketa-prozedura-ren fase hori gaingitzeko, «gai» izan beharko du.

Praktikaldia amaituta, hamaikagarren oinarri orokorraren arabera eratutako Batzorde Ebaluatzaileak txostena emango du izangai bakoitzaren gaitasunari eta baldintzei buruz, eta adieraziko du ea eskatutako gaitasun-maila lortu duten ala ez. Txosten hori hautaketa-prozesuaren Epaimahai Kalifikatzaileari helaraziko zaio, eta, Epaimahaiak, berau aintzat hartuta, ebatziko du ea izangaiek praktikaldia gaingitu duten ala ez, eta praktikaldia gaingitu dutenak izendatzeko proposamena bidaliko dio alkateari.

Izangaien izendapena baliogabetu ahalko da, praktikaldiaren edozein unetan, baldin eta gaitasun- edo aprobeitxamendu-baldintzak betetzen ez badituzte. Horretarako, atal-buruak proposamena bidali beharko dio hautaketa-prozesuaren Epaimahai Kalifikatzaileari, zeinak, proposamena ikusita, ebatziko baitu ea izendapena baliogabetu behar den ala ez, eta alkatetzara dagokion proposamena bidaliko baitu.

Hamaseigarrena. — Behin betiko izendatzea

Basauriko Udalaren karrerako funtzionario izendapena egingo da uztailaren 1eko 2377/2022 Alkatetza Dekretuaren Oinarri Orokorren hamabigarrenak ezarritakoarekin bat.

Hamazazpigarrena. — Plaza jabetzan hartzea

Eskumena duen udal organoak proposamena onartu eta gero, izendatutako izangaiek karguaz jabetu beharko dute, eta Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu batekina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1 c) artikuluan ezarritako baldintza bete.

Adierazitako epean bidezko arrazoirik gabe lanpostuaz jabetzen ez direnak kargu-gabetu egoeran geratu, karguari uko egin diotela jo, eta eskubide guztiak galduko dituzte. Kasua hori denean, oposizio-faseko ariketak gaingituta eta fase hori eta lehiaketakoa batuta balorazio onena lortu duen izangai izendatzeko proposamena egingo du Udalbatzaren lehendakariak, aipatutako uko egitearen ondorioz deitutako plazen kopuruaren barruan baldin badago. Hori guztia, gainera, Oinarri hauen hamabigarrenaren bigarren puntuarekin bat.

Karrerako funtzionario izendatutakoek, lanpostuaz jabetzean, lanpostua gordetze-ko eskubiderik ez dakarren eszedentzia eskatzen badute, hutsik uzten dituzten plazarak esleitu ahal izango dira. Ondorio horietarako, praktiketako funtzionarioaren izendapen osagarriaren proposamena erabiliko da, Epaimahai Kalifikatzaileak egindakoa, aurreko paragrafoan ezarritako prozeduraren bitartez.

Hamazortzigarrena. — Aurkaratzeko bideak

Oinarri hauek aukerako berraztertze-errekurtso bidez aurkaratu ahalko dira, Basauriko Udalaren Alkatetzan, hilabeteko epean; eta, bestela, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan inpugnatu ahalko dira, zuzenean, bi hilabeteko epean. Epe horiek biak zenbatzen hasiko dira Oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren datan, hala xedatzen dute-eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluek eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua.

**I. ERANSKINA****GAI-ZERREDA****ZATI OROKORRA**

1. gaia.—Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Funtsezko eskubide eta betebeharrak (Atariko titulua eta I. titulua).

2. gaia.—Udal antolaketa (Konstituzioaren 140. artikulua). Udal antolaketa (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen, 19. eta 20. artikulua).

3. gaia.—1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Legearen xedea. Aplikazio-eremua. Printzipio orokorrak.

ZATI ESPEZIFIKOA

4. gaia.—Aritmetika-kultura orokorra: oinarrizko kontzeptuak. Batuketak, kenketak, biderketak eta zatiketak. Ortografia. Gramatika. Kultura orokorra.

5. gaia.—Pintura: ezagutza orokorrak. Pintatzeko tresnak eta produktuak nola erabili eta zaindu.

6. gaia.—Igeltserotza: tresnak eta eskuzko lanabesak, eta horiek nola erabili, garbitu, zaindu eta mantendu.

7. gaia.—Iturgintza: kontzeptu orokorrak. Iturgintza-lan nagusiak. Tresnen, lanabesen eta materialen tipologia, erabilera eta zaintza. Iturgintzako instalazioen mantentze-lanak (komun-ontziak, txorrotak, zisternak eta sifoiak). Berotze-instalazioen mantentze-lanak (zirkuituak, betetze-lanak eta airea purgatzea; galdara-gelak; elementu garrantzitsuak).

8. gaia.—Elektrizitatea: kontzeptu orokorrak. Ikurrak interpretatzea. Elektrizitate-tresna nagusiak (bihurkinak, artaziak, aliketak eta beste batzuk) ezagutzea, erabiltzea eta zaintzea. Eraikinetako banaketa-koadroak (potentzia kontrolatzeko etengailuak, magnetotermikoak, diferentzialak). Soinu-zirkuituak (sakagailuak, txirrinak). Oinarrizko argiztatze-zirkuituak (etengailuak, konmutadoreak, lur-hargunedun eta lur-hargunerik gabeko entxufe-oinak, lanparak). Argi fluoreszenteen zirkuituak (pizarazgailuak, erreaktantziak, argi fluoreszenteak). Zirkuitu bereziak (alarmak, larrialdietako argiak). Kanpoko argiak.

9. gaia.—Arotzeria: kontzeptu orokorrak. Oinarrizko arotzeria-lanak. Arotzeria-tresna eta lanabes oinarrizkoak (mailuak, zerrak, trintxak, zulagailu elektrikoak, lixak, kolak eta beste lanabes eta osagarri batzuk). Mantentze- eta konponketa-lan ohikoenak (ateak eta leihoak doitzea). Sarraillak eta sarrailla-zilindroak. Pertsianak: motak, mantentze-lanak eta konponketak.

10. gaia.—Egiturak muntatzea, oinarrizko mekanika orokorra. Tresnak, lanabesak eta eragiketa errazak. Eraikuntzako makineria txikia (sorgailuak, hormigoi-makinak, konpresoreak, erreminta elektrikoak) erabiltzea eta makineria horren oinarrizko zaintzak. Mekanikako oinarrizko lanabesak (mailuak, bihurgailuak, giltza-mota desberdinak, zerrak, zulagailu eramangarria eta beste batzuk) ezagutzea, erabiltzea eta zaintzea. Sarraillagintzako oinarrizko lanak (ate eta leiho mekanikoak doitzea, sarraillak eta sarrailla-zilindroak, metalezko altzarien mantentze-lanak).

11. gaia.—Laneko segurtasunari eta higieneari buruzko oinarrizko arauak. Makinak erabiltzeko, lan egiteko, kanean jarduteko eta lanen seinalizazioa egiteari lotutako oinarrizko segurtasun-neurriak ezagutzea. Suteak eta larrialdiak: prebentzio-neurriak eta jarduteko jarraibideak. Zamak garraitzea. Segurtasuna eraikin publikoetan. Lehen soro-spenak.

12. gaia.—Ekipamendu eta zuzkidura publikoen kokapena, Basaurin.

13. gaia.—Laguntza-lan osagarriak. Bulegoko makina laguntzaileak erabiltzea eta oinarrizko mantentze-lanak: grapagailuak, fotokopiagailuak, inprimagailuak, eskanerrak, plastifikagailuak, kopiagailuak, orriak josteko makinak, dokumentu-birringailuak, multilinea telefonoak, proiektagailuak, soinu-sistemak, megafonia-sistemak).